

1.- AURKEZPENA. (Minutu bate do bi, etxaldeko emakumeen sarrera txiki bat barne)

Ni

Etxalde nekazaritza iraunkorra, ehko mugimendua E:B ren alde

Etxaldeko emakumeak. Betikoetaik, belaunaldi berriak, politikoki jantzi

Esperientzia bitalak, kolektiboak, zabalik daudenak.

## 2.-PANORAMA

Gaur egungo egoera elikaduraren inguruan bastante latza da. Askok pentsatu dezakezue danatarik daukagula eskuragarri, baina ez da egia. Agroindustriak erabakitzen du zer jaten dugun. Eskuragarri daukagun janaria, enpresa haundiek etekinak ataratzeko balio du. Ia dena kanpotik dator eta hemen produzitzen dena explotazioan oinarritua dago normalien, ez gaitezen engainatu.

Jendea elikatzea ez da empresa hauen helburua, euren poltsikoa elikatzea da.

Hau lortzeko, sistema konkretu bat behar da, nekazaritza intensibo eta industrial, alegia.

Lurra, itsaso, abere eta pertsonen explotazioan oinarritzen den sistema.

Honek hondamendia dakar, Nekazaritzan lurra pozoituz, soldata erabat prekarioak lortzen ditugu, gure landa eremuak zelan hustutzen diren ikusten dugun bitartean.

Ongi elikatzeak izan duen alde kreatibo, osainsu eta emozionala galtzen ari gara.

Baina nekazitzan ez ezik, elikadurak dena ikutzen du. Oso gai transbersala da. Pertsona guztiak jaten dugu eta beraz, eredu intensibo honek ere eragina dauka. Osaunean adibidez elikatze modua uniformizatzen ari da, osan arazoak ekarriz, ekonomian, nekazari txikien desagerpena dakar, tokiko garapenean, lurralde antolaketan, ingurumenean... etab luze bat

Pentsatu momento baten, zenbat puntu ikutzen dituen elikadurak eta ze garrantzi gitxi emoten diogun gizarte bezala.

### 3.- ALTERNATIBA POLITIKOA

EB beraz panorama hau iraultzeko sortu zan VIa Campesinatik.

Herri bakoitzak bere elikadura sistema propioa definitzeko duen eskubidea da.

Horrek tokian tokiko baliabideak erabiltzera eramaten gaitu.

Modu ekologiko eta sozialki ekonomikoki eta kulturalki egokiak diren praktikak erabiltzera eramaten gaitu.

E.B helburua izanik, agorekologia da gure bidea.

Kontzeptu politikoa da. Lehen sektoretik, gizarte osoari egiten diogun ekarpena da, baina ez bakarrik gure sektorea hobetzeko. Gizarte osoaren mesederako izango da. Gizarte osoarekin egin behar dugu

Ez gara bakarrik gure lan eskubideez hitzegiten ari, edo praktika konkretu batzuetaz hitzegiten ari, dena aldatu nahi dugu guk, sistema osoa, denak hobeto bizi ahal izateko.

Mugimedu feministak heteropatriarakatu kapitalista suntsitu! Esaten duenean, erabat identifikatuak sentitzen gara, guk ere hori uste dugulako. Eliakduraren bitartez ere lortu daitekeela uste dogu guk.

Ze, E:B eraikitzeko

Nekazaritza aldatu behar da, bide iraunkorra hartuz. Prozesu agroekologikoak martxan jarri behar dira. Prozesuak dinot, ez dugu gauek goizera lortuko, bidea egin behar da. Prekarietate ekonomikotik atara behar gara

Janarian distribuzinoa erabat aldatu behar da, lortzen dituzten etekin erraldoiak erabat murriztuz eta bide honetan jartzen ere bai.

Politika publikoak aladatu behar dira, hasi Europatik, nun hekaterak bakarrik kontutan hartzen diren eta lokaletatik amaituz, eta, adibidez, erosketa publikoak ere bide honetan jarriz.

Kontsumoa aldatu behar da. Erabat ganera. Alternatiba berriak eraiki behar ditugu danon aurrean. Baserritar txikien elikagai fresko, sasoiko, lokal, ekologiko eta justoak danon eskura euki ahal izateko bide berriak asmatu beharko ditugu.

Gizarte osoa bide berdinean jarri behar dugu beraz.

Gure sektoreari dagokionez, goian esan dudan bezala, soilik eredu iraunkor eta justotik lortuko dugu hau.

#### 4.- ZELAN?

Ba, ekonomia feministak esaten dauen bezala, bizitzak zentroan jarriz.

Diruaren ganetik, lurra, itsaosa, abereak eta pertsonak zainduko dituen nekazaritza eginez. Beti oreka bilatuz gure praktketan, ez soilik etekin ekonomikoa. Bebai antolakuntza aldetik, ekologikoki eta emozionalki sustengarriak diren proiektuak eraikitzen ari gara.

Hortik mugimendu feministarekin batera asko ikasten ari gara.

Pertsonak ondo eta osasuntsu elikatzea da gure helburua, ez soilik lehengai merkeak produzitzearena.

Guk elikadura bizitzaren zentroan kokatzen dugu.

Honen harira, Mugimendu feministari eztabaida sakona eskatzen diogu elikadura ereduaren inguruan, ereduaren baitago gakoak.

Guk dieta agroekologikoa eta antikapitalista aldarrikatzen dogu. Danon artean eraiki behar dogu, adibidez, erosketa publikoan eskolak, hospitalak etabarretan gure produktuak lehenetsiz, kontsumo taldeetan partehartuz, asteroko plazatan erosiz, supermerkatu kooperatiboetan partehartuz etab

Betsalde, erosketei eta sukaldaritzari bere espazioa eman behar diegu, gure bizitzan eta proiektu politikoetan.

Zentzu honetan aliantzak aliantzak estrategikoak dira guretzat. Adibidez eemm, mamiki edo feminston herrian euki ditugun aliantzak garrantzitsu dira, baita urtean zehar antolatzen ditugun auzolanak ere.

Eta beitu, amaitzeko erreflexino txiki bat, Itxi begiak mesedz.

Imaginatuz baserri txiki bat. Inmaginatuz ortu txiki eta dibersifikatu bat, imaginatuz lau esne behi, ardi batzuk, oilo batzuk hortik solte.... Imaginatuz bendeja bat, asteroko merkatu hurbil bat.

Nor irudikatzen duzue honen atzean? Emakume bat.

Oin imaginatuz traktore erraldoi bat, hekatera pilo bat, pabiloi erraldoia.....

Gizon bat dago honen atzetik

Honekin esan nahi dudana da, eredu txiki, jasangarri, lokalaren atzetik emakumea dagoela. Emakumea izan da historikoki eredu honen zaindaria.

Inbizibilaztaua izen da, gutxietsia izan da, baina eurei esker jakin dezakegu nundik jo.

Honek duen garrantzia emon izan bagenio gizarte bezala beste leku baten geundela esan dezakegu.

Beraz, etorri emakumeen eredura, gora E:B!